





## IV CONCURSO ADONA DE MICRORRELATOS

“Con una vez no basta”\*

### ADONAREN IV. MIKROKONTAKIZUN LEHIAKETA

“Behin ez da nahikoa”\*

\*La constancia es la clave para que la donación de sangre sea efectiva

\*Odola erregularitasunez ematea funtsezkoa da laguntza eraginkorra izan dadin

### LEHEN SARI EUSKARAZ MODALITATEA

**Izenburu: EZKUTUKO INDARRAK**

**Autore: Iñaki IRISARRI PELLEJERO**

In illo tempore, aurrekontuak murriztu behar zirela-eta Paradisua itxi zuteneko hartan, boteredunek ia beti egiten duten akats bera egin zuten orduko hartan ere: ez zioten ikusten ez denari erreparatu.

Horrela, Paradisuko atetzarrak itxi eta handik gutxira, beren ahalbideen gaineratik haziak omen ziren zuhaitz ederretako adarrak ere mozten aritu ziren, ur dezente xahutzen zelako, nonbait, hosto berde eta bizidun haiei berdetasuna eta bizia ematen.

Euria ere erreskatatu nahi izan zuten, eta ubide borobilak egin zituzten hodeietatik bildutako ur guztia hara bideratzeko, bueltaka eta bueltaka aurrera egin zezan ouroboros ero baten antzera, ibaiaren bide naturalaren ertzetako zuhaitzak idortzeko arriskuari kasu handirik egin gabe. Baina ez. Ezinbestekoa ematen zuena ez zen gertatu.

Oparotasun berdeak bere hartan jarraitu zuen, uste eta ustel guztiak harri utzita, zuhaitzen adaburuetan etengabe loratzen baitziren adaxka txiki berdeak eta fruitu berriak. Hondamendia ez zen gertatu, tartean ezkutuko indar misteriotsu bat izan balitz bezala. Eta halaxe zen, lurpeko sustrai adoretuak lan eta lan ari ziren, begi-bistaren gordean, goragoko adarretara behar zuten elikagaia zainetatik bidaltzen, eta, harekin batean, bizitasuna ematen.

Eta horrela, oihaneko zuhaitzek bizi-bizi jarraitu zuten, gaur egun inguruko basoetan ikusten ahal duzuen bezalaxe; ...eta hala ez bazan, sar dadila kalabazan. Eta konturatuko zinetenez, kondaira ez da “Bazen behin...” ohiko esamoldearekin hasi. Izan ere, elkartasun kontuetan, “behin” hitza ez da bidelagun onena, behin ez baita nahikoa izaten.